Tresnak **poliziak etnia profilaren** arabera egiten dituen **identifikazioen** kontra

zehar errefuxiatuekin

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

Bizkaia foru aldundia diputación foral

araba álava foru aldundia diputación foral

Gipuzkoako Foru Aldundia Diputación Foral de Gipuzkoa

ETORKIZUNA DRAIN Es futuro

DONOSTIA SAN SEBASTIÁN

Rosalind Williams edo Nazio Batuen aurrean Espainiako Estatua salatu zuen emakume afroamerikarraren kasua

1992Ko abenduaren 6an gertatu zen. Zenbait kasualitate epikoak dira. Rosalind Williams Lecraft Valladolideko geltokian dago, bere senarrarekin, zeina lanbidez diplomazialaria baita, eta bere semearekin. Autoa hondatu egin zitzaien eta Madrildik Valladoliderako bidea trenez egin behar izan zuten. Orduan, geltokian bertan, polizia bat gerturatu eta dokumentazioa eskatu zion. Rosalindek galdetu zion ea zergatik identifikatu zuen soilik bera. Poliziak erantzun zion «bera bezalako» pertsonak gelditzeko aginduak zituztela. Nolakoa da Rosalind Williams? Rosalind New Orleansen jaio zen. Erakusketetako komisarioa da, artean eta argazkilaritzan aditua, eta 1968tik bizi da Madrilen.

Rosalindek demanda bat aurkeztu zuen, Espainiako gobernuaren aurka, polizia batek beltza izateagatik identifikatu zuelako. Demanda hori gaitzesi egin zen. Konstituzio Auzitegiak ere ez zion kasurik egin. Baina, 2009an, 17 urtez auzitegietan borrokan ibili ondoren, Nazio Batuen Erakundeko (NBE) Giza Eskubideen Batzordeak arrazoia eman zion: poliziak ezin du norbait ezberdin hartu bere azalaren koloreagatik.

Irizpen hura oso garrantzitsua izan zen; izan ere, 2009an hura eman zen arte ez zen inoiz etnia profilagatik poliziak norbait identifikatu izana nazioarteko instantzietara iritsi. Lehen aldia izan zen, eta **bakarra.** Bakarra zen, nahiz eta halako identifikazioak egunero gertatzen diren.

2018ko abenduan Rosalind Williams Gasteiza etorri zen, bere esperientzia kontatzera, *Eraberean Tratu Berdintasunaren Aldeko eta Diskriminazioaren Aurkako Sareak* eta *Zehar-Errefuxiatuekin*ek antolatutako topaketa batera. Esan zigun oraindik gobernuak publikoki barkamena eskatzeko zain dagoela.

Testuingurua: diskriminazioa frogatuta

Rosalind Williamsena poliziak azalaren koloreagatik identifikatutako pertsona baten ezohiko kasua izan ote zen? Ez. Inolaz ere ez. Poliziak jendea bere etnia profilagatik identifikatzea **ohikoa** da.

Arrazakeriaren eta Intolerantziaren aurkako Europako Batzordeak (ECRI, ingeleseko siglen arabera) honako **definizio** hau ematen du: «poliziak arrazoitzat arraza, kolorea, hizkuntza, erlijioa, herritartasuna edo jatorri nazionala zein etnikoa erabiltzea, justifikazio objektibo edo arrazoizkorik gabe, beraien kontrol, zainketa edo ikerketa jardueretan».

Definizio hori osatzeko, Europar Batasuneko Oinarrizko Eskubideen Agentziak (FRA) **datu kuantitatiboak** eman zituen 2010ean argitaratutako txosten batean (Hemen ikusgai:https://fra.europa.eu/sites/default/files/fra_uploads/1132-EU-MIDIS-police_ES.pdf). 2021ean argitaratutako beste txosten gaurkotuago batek honako hau adierazten du: Espainiako estatuan, pertsona ijitoen % 32ak edo Afrika iparraldeko pertsonen % 14ak adierazi du Poliziak kontrolatu izan dituela. Datu hori oso urrun dago biztanleria osoari dagozkion datuetatik (% 4). Hemen ikus daiteke txosten osoa: https://fra.europa.eu/sites/default/files/fra_uploads/fra-2021-fundamental-rights-survey-police-stops_en.pdf.

Zer egin?

Zer egin behar da pertsona ijitoek, Afrika iparraldekoek eta bestelako profil etniko edo jatorri batzuk dauzkatenek jasaten dituzten identifikazio zifren aurrean? Horixe da giltza.

Jarraian, erantzun-tresnak bildu ditugu, azaletik deskribatuta daude, arrazializatuak, migratuak eta/edo errefuxiatuak izateagatik poliziaren bidez identifikatutako herritarren eskura, bai eta herritarren eta, oro har, polizia-praktika arrazista horiek salatzea erabakitzen duten erakundeen eskura ere.

Tresna juridikoak

Tresna juridikoetatik abiatuko gara (Rosalind Williamsek horiexek erabili baitzituen, gehien bat), eta horretarako, lehenik, esango dugu bide judiziala badagoela halako polizia jardunbideak salatzeko, nahiz eta beharrezkoa

den onartzea ia ezinezkoa dela aurrera egitea. Bestela esanda, profil etnikoagatik norbait identifikatzen badute, teorian, beti dago identifikazio hori judizializatzeko aukera. Hori bai, oso-oso zaila da halako kasuetan erabaki judizial bat jasotzea bueltan. Horren adibide da Espainiako estatuan **bi kasu baino ez direla judizializatu**, oraintxe aipatuko ditugun biak: Rosalind Williams Lecraftena (orain dela 30 urte baino gehiago gertatua) eta Zeshan Muhammadena Espainiaren aurka. Bi kasu horien ebazpen judizialetatik zenbait irakaspen atera ditzakegu, salaketa bat auzitegien aurrean nola defendatu behar den jakiteko.

Aurrez aipatu dugun kasuan, **Rosalind Williams Lecraft eta Espainiaren artekoan**, liskar estrategikozko 17 urte igaro ondotik, Nazio Batuen Erakundeko (NBE) Giza Eskubideen Batzordearen honako irizpen hau lortu zen, 2009ko abuztuaren 17an (1493/2006 zenbakiko komunikazioa): «Polizia aginpideek kontrolak egiten dituztenean, pertsonen ezaugarri fisikoak eta etnikoak ez dira hartu behar aintzat haiek herrialdean izan dezaketen egoera ilegalaren zantzutzat. Halaber, kontrolak ez dira egin behar ezaugarri fisiko eta etniko jakin batzuk dauzkaten pertsonak soilik seinalatzeko eran. Hala ez egiteak, kontrolak egiten zaizkien pertsonen duintasunean ondorio negatiboak izateaz gain, gizartean jarrera xenofoboak heda daitezen sustatuko luke eta ez letorke bat arrazagatiko bazterkeriaren kontrako politika eraginkorrarekin» (7.2 apartatua).

Zeshan Muhammaden Espainiaren aurkako kasuan, Zeshan jatorri pakistandarreko Kataluniako hiritarra da, eta umetan iritsi zen Espainiara. 2013an, lagun batekin kalean zegoela, Polizia Nazionaleko agente batek identifikatu egin zuen. Polizia hark onartu egin zuen, hitzez hitz «paperak» beltza zelako eskatu zizkiola. Zeshanek muzin egin zion bere dokumentazioa erakusteari, eta atxilotu egin zuten. Europako Giza Eskubideen Auzitegiaren (EGEA) 2022ko urriaren 18ko ebazpenak zioen bere laguna atxilotu ez izanagatik, ezin zela adierazi Zeshan arrazakeria arrazoiengatik atxilotu zutenik. Hala, ulertu zuen atxiloketa gertatu zela Zeshanek identifikatzeari uko egin ziolako, eta ez haren etnia profilagatik. Auzitegi hark kontrako ebazpena igorri zuen, nahiz eta ez zen ikerketarik ere egin ekintza hura diskriminatzailea izan ote zen zehazteko (nahiz eta, berez, estatuko autoritateek ikerketa hori egiteko derrigortasuna izan, Giza Eskubideen Europako Hitzarmenaren 14. Artikuluak dioenez, GEEH).

Aipatzekoa da egun horretan bertan, 2022ko urriaren 18an, EGEAk Zeshanen kasuaren ebazpena igortzeaz gain, Europako Giza Eskubideen Auzitegiak berak beste ebazpen bat igorri zuela: **Basu Alemaniaren aurka kasuarena.** Demandatzaileei (Indiar jatorriko pertsona Alemaniarra eta

haren alaba) Alemaniako Polizia Federaleko bi agentek identifikatzeko eskatu zieten, tren batean bidaiatzen ari ziren bitartean. Aurreko kasuan ez bezala, kasu horretan frogatu ahal izan zuten identifikazio hori bazterkeriaz egin zela eta bagoi hartan zeuden pertsonen artetik beraiei baino ez zietela dokumentazioa eskatu. EGEAk frogatzat hartu zituen gertakizun haiek nahikoa izan ziren Auzitegiak Alemaniako Saxonia estatu federalaren alegazioa atzera botatzeko. Alegazioak zioen demandatzailea bere ezaugarri fisiko hinduengatik aukeratu ez zutela..

2022ko urriaren 18ko EGEAren bi epai horiek interes handikoak izan ziren, lehen aldia baitzen Europako Auzitegiak gai horri buruz zerbait adierazten zuela. Hala ere, gure balorazioa ez da positiboa, aurrez aipatu dugun gisan, ez zelako estatuko aginpideek ikerketa independente bat eska zezaten galdegin, jakiteko polizia agenteek, arraza edo gorroto aurreiritziak tarteko, jarrera diskriminatzailea izan zuten ala ez. Gaia konplexua baita. Ez da erraza frogatzea polizia-agente batek aurreiritzi arrazistek edo animoek eraginda jarduten duenean etnia jakin bateko herritarren aurka, edo nagusien aginduengatik edo beste arrazoi batzuengatik bakarrik jarduten duenean.

Konplexutasun horren aurrean, estatu bakoitzak behar du esparru juridiko bat eta lege esparru bat, bermatzen duena beraien poliziak egiten dituen identifikazioak norbanakoaren jokabidean oinarritutako irizpide objektiboen arabera egiten direla, eta ez talde jakin batzuen kontrako estereotipoen eta aurreiritzien arabera.

Espainiako estatuak badauka indarrean horrelako lege esparrurik? Zoritxarrez, EGEA Auzitegiaren begietara ez zen garrantzitsua izan hori aztertzea Zashanen kasuan (ezta Alemaniako Basuren kasuan ere, bide batez esateko).

Kontrara, beste ebazpen batzuetan bai hartu direla testuingurua eta esparru juridikoa zein lege esparrua aintzat, eta onartzen dute etnia profilaren arabera egiten diren identifikazioak egunerokoaren parte direla, eta **arrazakeria instituzionala** litzatekeela horren kausa.

Horien artean, duela gutxi, 2023ko urriaren 11n, Frantziako Estatu Kontseiluak ebazpen bat eman zuen, zazpi GKEk (Amnesty International eta Human Rights Watch, besteak beste) bultzatutako ekimen bati zegokiona. Ekimen horrek salatzen zuen Frantzian poliziak etnia profilaren araberako identifikazio kontrolak sistematikoki eta modu diskriminatzailean egiten zituela.

Egia da ebazpen horretan Estatu Kontseiluak GBE horien demandari ezetza eman diela (demanda hark jarduketa zehatzak proposatzen zituen, identifikazioak erregistratzeko sistema bat, agenteen prestakuntza planak, etab.). Atzera bota dute, neurri horiek ezartzeko eskumenik ez daukala iritzi diotelako. Hala ere, ebazpen horretatik azpimarratzekoa da onartu egiten duela poliziaren jarduna sistematikoa dela, eta ondorioztatzen du Estatua dela diskriminazio horren arduraduna.

Noiz emango du Espainiako Konstituzio Auzitegiak halako ebazpen edo epai bat?

Lege tresnak

Aurreko atalean aipatu da eta berreskuratu egin nahiko genuke herrialde edo estatu bakoitzean **identitate kontrolak egiteko garaian poliziaren boterea erregulatzen duen lege esparru bat**en beharra dagoela, saihesteko arraza profiletan oinarriturik egitea.

Behar hori zenbait nazioarteko erakundek azpimarratu dute, ECRIk (Arrazakeriaren eta Intolerantziaren aurkako Europako Batzordea), esaterako, 11. Gomendio Orokorrean jaso du; Arraza-diskriminazio mota guztiak ezabatzeko Nazioarteko Konbentzioak ere bai, (CERD, ingeleseko sigletan) 36. Gomendio Orokorrean; baita FRAk ere (Europar Batasuneko Oinarrizko Eskubideen Agentzia), oraintsuago, 2023ko txosteneko 4.4 irizpenean.

Gomendio horiek Espainiako estatuko testuinguru espezifikoan aplikatzeko, honako galdera hauek otu zaizkigu: poliziak eginiko identifikazio horiek zer lege esparruren barruan egiten dira? Edo, bestela esanda: **zeintzuk dira legezkoak eta zeintzuk ez?** Gida honetan hiru erreferentzia baino ez ditugu aipatuko, adibide gisa.

Lehenik eta behin, *4/2015 Lege Organikoa, martxoaren 30ekoa, Herritarren Segurtasuna Babestekoa*(https://www.boe.es/boe_euskera/dias/2015/03/31/pdfs/BOE-A-2015-3442-E.pdf), bertan jasotzen da zeintzuk diren **Estatuko segurtasun indar eta kidegoak norbait identifikatu ahal izateko bi kasu posibleak**: a) arau hauste batean parte hartu duen zantzuak daudenean (arau haustea egitea bukatu da eta ustezko egileak identifikatzen dira); eta b) unean uneko egoera ikusita, zentzuz irizten denean norbaiten identitatea egiaztatzea beharrezkoa dela, delitu bat egin dezan prebenitzeko (delitua ez da egin eta identifikazioa

prebentiboa da). Horrek, besteak beste, adieraziko luke Espainian egoera irregularrean dauden atzerritarrak lokalizatzeko xedez **ohizko identifikazio kontrolak** leku publikoetan jartzea nahiko zalantzagarria dela, lege-estaldurari dagokionez.

Lege horretan bertan jasotzen da identifikatzea posible ez denean, edo pertsona bere burua identifikatzeari uko egiten dionean, agenteek pertsona horri eska diezaioketela polizia dependentzietara beraiekin joateko, identifikatzeko baino ez, eta horretarako behar den denboraz baino ez. Tarte hori ezin izan daiteke, inolaz ere, sei ordu baino luzeagoa. Dena den, beraiekin joateko eskari hori, identifikatzeko eskatzen zaion pertsona baten kasuan bezala, berehala informatu behar da, eta ulertzeko moduan azaldu behar da eskari hori zergatik egiten den.

Mahairatu nahi dugun bigarren lege erreferentzia *7/2015 Instrukzioa da, Segurtasuneko Estatu Idazkaritzarena, identifikatzeari, kanpoko gorputz-erregistroei eta adingabeekin jarduteari buruzkoa* (hemen ikusgai:https://www.manualpolicial.es/Descargas/Legislacion/4Leg/5SC/instruccion-7-2015.pdf). Bertan ikusten da dokumentuak dauzkaten pertsona atzerritarrak komisariara bideratzeko polizia jardunbidea **ez dela legean aurreikusten**, pertsona horrek une horretan Espainian legalki dagoela frogatzen ez badu ere.

Hirugarrenik, urriaren 17ko Estatuko Segurtasun *Idazkaritzaren 13/2018 Instrukzioa, kanpoko gorputz erregistroen praktikari, arau hauste batzuen interpretazioari eta herritarren segurtasuna babesteari buruzko martxoaren 30eko 4/2015 Lege Organikoari* lotutako prozedura arazoei buruzkoa. Instrukzio horrek erantzuten du identifikazio lanak edo beste polizia jarduera batzuk egiten dituen bitartean polizia graba daitekeen ala ez (hemen eskuragarri: https://cppm.es/wp-content/uploads/2018/10/instruccion-13-2018-ministerio-interior-aplicacion-ley-seguridad-ciudadana-oct2018.pdf).

Instrukzio hori irakurrita, ulertzen dugu Espainiako estatuak polizia eta bere jardunaren irudiak hartzeko baimena ematen duela, nahiz eta isunak ezartzeko aukera dagoen irudi horiek baimenik gabe erabiltzeagatik (zabalpena, kasu), batez ere agenteak arriskuan jartzen badira. Testuak esplizituki adierazten du «irudiak hartu dituen pertsona identifikatzeko aukera, hala badagokio, jarduleen eskubideak babesteko behar diren jarduketak egiteko, edo, datuak edo irudiak modu irregularrean erabiliz gero, zigor edo administrazio zehapena ezartzeko».

Beste kontu bat da, herri tresnen atalean ikusiko dugun lez, oinezko herritarrak halako lege instrukzioen aurrean kikiltzea edo ez kikiltzea. Argi dagoena zera da: hainbat herri eragile eta gizarte mugimenduak egindako salaketak, argazkien bidezkoak izan edo ez, benetako galga ari direla izaten poliziak etnia profilagatik egiten dituen identifikazioen kontra, **nahiz eta horiek legearen eta tratu berdintasunaren zein diskriminazio ezaren printzipioen aurkakoak izan**.

Printzipio horiek ditu ardatz *15/2022 Lege integralak, uztailaren 12koak, tratu berdintasunerako eta diskriminazioa ekiditekoak*, 18. Artikuluan jasotzen du Espainiako poliziek saihestu egingo dutela bazterkeriazko profilak erabiltzea justifikazio objektiborik gabe, eta era berean, jarduteko modu hori hedatu egingo dela segurtasun pribatuko jarduera eta zerbitzuak egiten dituzten pertsona fisiko eta juridikoei.

Tresna instituzionalak

Instituzioen planoan, horietako asko dira etnia profilagatik egiten diren identifikazioek kezkatzen dituztenak.

Esparru hurbilenean, urriaren 28ko Arartekoren 7/2011 Gomedio Orokorra azpimarra daiteke, zeina Arartekoaren 2021eko Eusko Legebiltzarrentzako urteko txostenean ere birgogorarazi baitzuten. Bertan, segurtasunaren esparruan jasotako kexak jaso ziren, eta «oraindik gorputz erregistroak eta identifikazioak egiten dira bide publikoan, arrazaren araberako profilak egiten dira eta arrazoiak bilatzen dira» (Eusko Legebiltzarrarentzako urteko txostena 2021, 149. or.).

Segurtasunaren arloan eskumena duen administrazioa jakinaren gainean dago; horregatik, 2012an, **Barne Ministerioko Poliziaren Zuzendaritza Nagusiak** herritarrak identifikatzeari buruzko 2/2012 Zirkularra eman zuen, *apirilaren 17ko 45/2013 Gomendioan* Herriaren Defentsarako Erakundeak bidalitako proposamenekin osatua, profil etnikoetan eta arrazakoetan oinarritutako identifikazio kontroletan oinarritutako polizia praktikak errotik kentzeko.

Gomendio horien xedea da Espainiako Poliziak identifikazio eta erregistro galdetegiak sistematikoki erabiltzea, eta galdetegi horietan identitate kontrola egiten zaion pertsonaren etnia, arraza eta/edo herritartasuna agertzea, baita identifikatu izanaren arrazoia zein den ere. Hala, identifikazio galdetegietatik jasotako datuekin estatistika sistema bat egin ahalko

genuke, eta jasotako datuak etniaren, arrazaren eta/edo herritartasunaren arabera antolatu.

Izan ere, zenbait azterlanek frogatu dute etnia profilaren arabera identifikatzeak ez duela delitu baten jazarpenaren eraginkortasuna hobetzen. Azterlan horien artetik baliagarrienetako bat Valentziako Unibertsitateak 2013an eginikoa da (hemen ikusgai:https://www.uv.es/garciaj/pub/2013_perfil_etnico.pdf), hauxe izena: *Poliziak etnia profilaren arabera egiten dituen identifikazioak Espainian. Poliziaren jarduketari lotutako esperientzia eta jarreren txostena.*

Ijitoen Idazkaritzak eginiko txostena ere azpimarragarria da: Polizia identifikazio inpartzial eta eraginkorrak (hemen ikusgai https://www.gitanos.org/upload/33/59/1.4.0-OPE-ide_Identificaciones_policiales_imparciales_y_eficaces.pdf).

Bitxostenek aztertzen dituzte Espainiako estatuan eginiko hainbat proiektu, **STEPSS Proiektua** (Strategies for Effective Police Stop and Search) (in https://www.gea21.com/archivo/pasos-hacia-la-igualdad-el-proyecto-stepss/ n) edo **Polizia Identifikazio Eraginkorrerako Programa (PIPE)**, ikerketa honetan aztertu dena (hemen ikusgai https://www.uv.es/garciaj/pub/2013_perfil_etnico.pdf). PIPE aplikatzeko kasu zehatz bati buruzko informazio gehiago irakurri hemen https://www.eldiario.es/madrid/estrella-derechas-policia-madrid-antirracista_1_1494937.html.

Estatu mailatik irten gabe, Kataluniako Generalitatearen azterlan bat ere azpimarratu nahiko genuke: *Polizia identifikazioak diskriminatzaileak ez izateko proposamenak* (hemen ikusgai: https://igualtat.gencat.cat/web/.content/Ambits/drets-igualtats/informes-DDHH/identificacions-policials-es.pdf). Lan horren balioa da espresuki onartzen duela halako praktikak egiten direla eta, horrez gain, Kataluniako Segurtasun Plan Orokorra 2020-2023an sartu beharreko proposamen zehatzak egiten dituela.

Europa mailan, aipatzekoa da **FRA**k *Etnia profil diskriminatzaileak ulertu eta egitea saihesteko gida* bat argitaratu zuela (hemen ikusgai:https://fra.europa.eu/sites/default/files/fra_uploads/1133-Guide-ethnic-profiling_ES.pdf).

Helburu bera zuen 2012an **Open Society Fundazioak** argitaratutako *Reducing Ethnic Profiling in the European Union: A Handbook of Good Practises* azterlanak ere. Hemen ikusgai: https://www.justiceinitiative.org/

uploads/449dcf75-c97e-432c-8fd2-f7a884057d48/reducing-ep-in-EU-12172012_0.pdf

Open Society fundazioak eta polizia erakunde batzuek, **Unijepol**ek, besteak beste, etnia profilaren araberako polizia identifikazioei buruzko prestakuntza ikastaroak sustatzen dituzte tokian tokiko polizientzat eta autonomietako polizientzat.

Herri tresnak

Azkenik, dauden herri tresna guztien artetik, duela zenbait urte martxan jarri ziren **Auzokideen Brigadak** azpimarratuko genituzke. Auzokide taldeak ziren, eta identifikazio lanetan zebilen polizia jarraitzen zuten, arrazakeriazko identifikazioak salatzeko. Giza Eskubideen Behaketarako Auzokideen Brigadek lan handia egin zuten Katalunian (https://www.brigadasvecinales.org/) eta Madrilen (https://rojoynegro.info/articulo/informe-de-brigadas-vecinales-controles-racistas-en-madrid/).

Etnia profilaren araberako identifikazioei buruzko beste baliabide batzuk interneten

2021ean SOS Racismek «Pareu de Parar-me» **(Gelditu ni gelditzen)** kanpaina abiarazi zuen, eta arraza profilaren araberako identifikazioak salatzea, ikusaraztea eta geldiaraztea zituen xede. Identifikazio horiek denbora errealean geolokalizatzeko gai den softwarea ere badu. Hemen: https://sosracismo.eu/tag/paraddepararme/.

Public Interest Litigation Project Ethnic profiling: https://pilp.nu/en/dossiers/ethnic-profiling/

Open Society Fundations. Ethnic Profiling: What It Is and Why It Must End. Hemen: https://www.opensocietyfoundations.org/explainers/ethnic-profiling-what-it-and-why-it-must-end.

Statewatch EU: Ongoing rollout of biometric identification systems likely to exacerbate ethnic profiling. Hemen: https://www.statewatch.org/news/2022/february/eu-ongoing-rollout-of-biometric-identification-systems-likely-to-exacerbate-ethnic-profiling/.